



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 26an

31 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzkoa (2. or.).
- Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua. Proiektua erretiratu egin dute (9. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Foru Komunitateko ureztapenen plana azkartu eta bete dezan (10. or.).
- Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babes ematen dio “Adio armaei” izeneko kanpainari (12. or.).
- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da telefonia mugikorren antenen instalazioa arautu dezan (13. or.).
- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da liburutegien sarean Internet jar dezan (14. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da atal zein bulego burutzak betetzeari buruzko araudia aplikatu dezan (15. or.).
- Mozioa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kanpin instalazioetako arriskuak aztertzei berriro ere ekin diezaion (16. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da sexu- eta osasun-hezkuntzako teknikari lanpostuetarako prestakuntza berezia eska dezan (17. or.).
- Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako adierazpen instituzionala. Eledunen Batzordeak onetsia (18. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin, “Andosilla II” izeneko lurzatie berrantolamenduari buruzkoa (19. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin, A-68ko Lodosako sarbideari buruzkoa (20.or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egin, eguzki-energia sustatzeari buruzkoa (20. or.).
- Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin, telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin, Nafarroan arte garaikidearen zentroa sustatzeko konpromisoari buruzkoa (22. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko martxoaren 12an hartutako erabakiaren bidez, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**Lehena.-** 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioako Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko apirilaren 18ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzko Foru Lege proiektua**

### **ZOIEK AZALPENAK**

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak (Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa) bere 61. artikuluan agintzen du Nafarroako Gobernuak, hartarako gaitasuna ematen dion Foru Lege bat oinarri, inbertsio planak ezarriko dituela toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresnatzat, eta plan horien helburu nagusia izanen dela Nafarroako lurralde osoan segurtatzea nahitaezko udal zerbitzuak egon daitezen.

Hori betetzeko, bada, zenbait arau onetsi dira bata bestearen ondotik; haietako berriena 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legea da, orain garatzen eta betearazten ari dena.

Tresna horiei esker, kontsignatutako kapital transferentzien partiketa objektiboa lortu da, nahiz eta aurrekontuaren gutxiegitasunak ezindu duen eskatutako inbertsio guztiak asetzea. Plan horiek betearazteak agerian utzi du zenbait eremuren egoera, beren kokaera geografikoagatik edo populazio gutxi eta barreiatua izateagatik edo bestegatik, makurtu dela, haien inbertsioak ezin izan baitira sartu Hiru Urteko Planetan, beste herrietan lehentasun handiagoko obrak zeudelako, edo haien finantzen egoera oso larria zelako. Inbertsioetarako dirutzak arrazionalki igotzeak ere ez luke egoera hau konponduko.

Aipa dezagun, adibidez, Presio Handiko Urhorniduraren Plan Zuzentzailearen kasua, irispide handikoa delako. Plan hori 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean ageri zen, zeinaren finantzazio arrunta, kapital transferentzien bidezkoa, inbertsio kostuaren ehuneko 90era iristen den. Parte-hartze portzentajea handia bada ere, defizita egoten da halako azpiegituretan

Nafarroako zenbait puntutan, batez ere kasuko toki entitateak hartarako finantzazioa bere gain hartu ezin eta ez direlako atxikitzen.

Bestalde, toki programazioko inbertsioei dago-kienez, toki entitate guztiek aurkeztutako eskaerak hautatu eta lehenesteko formulak aukera ematen du konprobatzeko badirela zenbait obra, entitate bakoitzak erabiltzen duen defizit kontzeptuaren arabera laburrera begira beharrezkotzat hartuak baina hala ere inbertsio planetan sartzen ez direnak, zeren aplikatzen diren gainerako aldagaiek, inbertsioak biztanleko duen errentagarritasuna ere barne, nabarmen gutxitzen dutelako obra hautatu eta lehenesteko koefizientea.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 34. artikulua (Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa) agintzen du ekintza publikoaren sektoreak arautzeko Foru Komunitateko legeetan zilegi izanzen dela araubide bereziak ezartzea zenbait udalentsat, baldin beren kokaera geografikoagatik, jarduera nagusiagatik, ondare historikoagatik edo beste edozein berezitasunengatik komeni bada haien antolamenduan edo finantzazio sisteman tratamendu banakatua ematea.

Lortutako esperientzia ikusita, honelako azpiegitura oinarrikoak finantzatu, hautatu eta lehenesteko irizpideak moldatu behar dira, berdin direnek elkarrekin lehiatzeko aukera izateko moduan.

Nafarroako lurraldearen antolamenduaz eta hiri sistemaz egin diren ikerketek agertu dute badirela garapen sozioekonomiko gutxiagoko zenbait udal, eta horren ondorioz heldu zaizkiela gainbehera demografikoa, populazioaren zhartztea, euskarri produktibo atzeratua, garapen ekonomikoaren eta dotazioen maila apala eta beste hainbat aldagai esanguratsu.

Kontzeptu horiek parametro harturik, bada, herri zerranda bat ateratzen da, Nafarroako eremu deprimitutzat jotzeko modukoena; horiei eman nahi zaie finantza tratamendu berezia eta horiek dira Foru Lege honen helburu.

Oinarriko azpiegiturez hornitzera bultzatzeko asmoan, ezin ahaztu da eginahalean lortu behar dela baliabideen aprobetxamendurik handiena. Hortaz, eta erdietsi behar den efikazia helburu, baliteke zenbait ekintzatarako toki entitateen borondatezko elkarteak sortu behar izatea.

Nafarroako eremu deprimituek dituzten premia gero eta handiagoak asetzeko, araubide berezi bat ezarri behar da 2003. urtera arte, indarrean den Hiru Urteko Plana osatzeko, eremu horiek oinarriko azpiegiturretan izaten duten defizita berdintzeko funts eta finantzazio sistema banakatua

ezarritik, aukera emango diena horko herritarrei gainerako nafarrek eskura izaten dituzten oinarriko zerbitzuak haiek ere izateko.

Aurreko guztia gogoan, lagundu behar zaie toki entitate horiei inbertsio behinenak egiteko: Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailea, ura banatzeko eta saneamendurako sare lokalak eta zoladurak ere barne, 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru Urteko Planerako eskaerak oinarri hartuta eta funtsak aplikatzeko arau honek erasaten dien entitateetarako erdietsi diren hautatu eta lehenesteko irizpideak aintzat hartuta.

Finantzazioari dagokionez, Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaileari ehuneko 10 emanen zaio 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru Urteko Planaren Foru Legeak agintzen duenaren osagarri; toki programazioko obretarako eutsi egingen zaio arau hori aplikatuta tokatzen den finantzaziorari.

Foru Lege honen ondoriozko dotazioak osagarriak dira 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak agintzen dituenen aldean; biek batera osatzen dute Toki Ogasunek kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoan Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik toki entitateek jaso behar duten kapital transferentzien bidezko aportazioa.

Azkenik, arau honek toki azpiegituren sistemarikiko duen osagarritasuna aitorturik, uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta bera garatzeko araudiak agintzen duen prozedura erabiliko da Foru Lege honek espreski aurreikusten ez dituen ekintzatarako.

**1. artikulua.** Foru Lege honen helburua da 2001-2003 urteetarako Plan Berezi bat ezartzea Toki Azpiegituren gaietarako, 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak agintzen duenaren osagarri. Planak eranskinean ageri diren herriak izanen ditu helburu, Foru Lege honek agintzen dituenetarako horiek hartzen baitira eremu deprimitutzat.

**2. artikulua.** Finantzatu beharreko inbertsioak honakoak izanen dira, hurrenez hurren eta inbertsio mota bakoitzari funtsak aplikatuz, behin aurrekoa osatu ondoren: Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailea eta 2001-2003 Hiru Urteko Planean sartu ez diren zoladurari buruzko toki programazioko lanak, baldin eta delako planean sartu ziren ura banatzeko eta saneamendurako sare lokaletarako inbertsioekin lotuta badaude, ura banatzeko eta saneamendurako sare lokalen lanak eta bai, halakorik bada, lan horiek erasan-

dako kale-zoladurako lanak, bi inbertsio motak eskatu badira, eta azkenik zoladura lanak 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeko 2. eta 3. artikuluek zehazten duten moduan.

**3. artikulua.** Plan Berezi honi egiten zaizkion aportazioak, Nafarroako aurrekontu orokorretik kapital transferentziak egitearen bidezkoak, urte bat baino gehiagotan eginen dira, honela:

APORTAZIOAK	2001	2002	2003	Total
(Pezeta milakoak)	350.000	350.000	350.000	1.050.000

**4. artikulua.** Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailea gauzatu eta betearazteko, aintzat hartuko da 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru Urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta haren garapeneko araudiek agintzen dutena.

**5. artikulua.** Toki programazioko lanak hautatu eta lehenesteko, aintzat hartuko da Foru Lege honek aipatzen dituen toki entitateek 2001-2003 urteetarako Hiru Urteko Planaren formazio prozesuan aurkeztutako eskaerak izan duten hautatze eta leheneste koefizientea. Zehaztu diren klaseko lanetatik laburrera begira beharrezkotzat kalifikatu direnak baizik ez dira aintzat hartuko, azpiegituretan bakoitzak duen defizitaren arabera.

**6. artikulua.** Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaileko lanetarako aportazioa ehuneko 10ekoa izanen da, 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru Urteko Planari buruzko Foru Legeak inbertsio horietarako aurreikusten dituen aportazioen osagarri.

**7. artikulua.** Toki programazioko lanetarako aportazio araubidea 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru Urteko Planari buruzko Foru Legeko 9. eta harekin bat datozen artikuluek agintzen dutena izanen da.

**8. artikulua.** Foru Lege honetan jasotzen den Plan Berezia formatu, garatu, kudeatu eta bete-arazteko prozedura, 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta lege hori garatzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 20ko 36/2000 Foru Dekretuak ezartzen dutena izanen da, arau honetan aurreikusten diren berezitasunen arabera moldatua.

**9. artikulua.** 1. Ekitaldi ekonomiko batean erabiltzen ez diren baliabideak, hurrengo ekitaldikoei erantsiko zaizkie.

Kreditu bat erantsi eta eranste horri baimena eman zaion ekitaldi ekonomikoan aplikatzen ez bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako gastu egoerari erantsiko zaio, ekitaldi horretan aplikatzeko.

2. Eraitzen konrtuetako aurrerapenak aurreko ekitaldietako lanen kostu soberakinak berdintzeko erabiliko dira eta bai, hala behartzen bada, lan berriak egiteko ere, 2., 4. eta 5. artikuluetan agintzen diren modu eta baldintzetan.

### Xedapen gehigarriak

**Lehenbizikoa.** Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaileko inbertsioak, Foru Lege honek aipatzen dituenak, toki entitate bat baino gehiagok elkar hartuta egitea beharrezkoa bada, hartarako elkarte sortzea izanen da baldintza; elkarte bakoitzak arau honen eranskinean ageri diren herriek osatua beharko du eta zilegi izanen da beste entitate batzuk ere elkartekide izatea betiere populazioaren gehiengo beste herri horietakoa bada.

**Bigarrena.** Aldatzen da 2001. ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko 18. artikulua, eta honela uzten:

“1. Toki Ogasunek Nafarroako Ogasun Publikoaren Tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa, 2001eko ekitaldirako, 27.013.811.000 pezetako izanen da.

2. 2001eko ekitaldirako esleitutako parte-hartzearen zenbatekoa honela banatuko da:

I. Transferentzia arruntak: 16.916.502 pezeta.

II. Kapital transferentziak: 7.046.261.000 pezeta

III. Bestelako Laguntzak.

A) Iruñeko udalari, “Iruñaren hiriburutasuna”ren aldera: 2.138.691.000 pezeta.

B) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 30.000.000 pezeta.

C) Nafarroako udalentsako diru konpentsazioa: 882.357.000 pezeta; haietatik 172.940.000 pezeta zenbait udali emanen zaizkie “gastu aplikatuaren arabera ponderatutako biztanlea” delako aldagaiaren alderako konpentsazio gisa, eta 709.417.000 pezeta 4001etik 40.000 biztanlera bitarteko populazioa duten udalei, finantza efikaziaren arabera.

3. Kapital transferentziei dagozkien zenbatekoa banatzeko, 2001-2003 urteetarako Toki Azpiegituren Hiru Urteko Planari buruzko Foru

Legeak eta 2001-2003 Plan Bereziaren Foru Legeak Toki Azpiegituren gaitan agintzen dutena hartuko da aintzat.”

### Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

### ERANSKINA

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
2	ABARTZUZA	58	AURITZ
3	ABAURREGAINA	59	BURGI
4	ABAURREPEA	63	CABREDO
8	AGUILAR DE CODÉS	71	GAZTELUBERRI
11	ALLIN	81	DONAMARIA
	AMILLAO	82	ETXALAR
	ARAMENDIA	87	ELGORRIAGA
	ARBEITZA	90	ERATSUN
	ARTABIA	91	ERGOIENA
	ETXABARRI		LIZARRAGA
	EULTZ		DORRAO
	GALDIO		UNANU
	LARRION	92	ERROIBAR
	MUNETÁ		AINZIOA
	ZUBIELKI		ZILBETI
13	AMESKOABARREN		ERRO
	ARTATZA		ESNOTZ
	BAKEDAO		AURIZBERRI
	BARINDAO		LINTZOAIN
	EKALA		MEZKIRITZ
	GOLLAO		ORONDRITZ
	SAN MARTIN-AMESKOA		BIZKARRETA-GERENDIAIN
	ZUDAIRI	93	EZKAROZE
19	AGOITZ	94	ESLABA
21	ARANARATXE	95	ESPARTZA
24	ARANO	99	ETAIU
26	ARAS	102	EZKURRA
28	ARTZIBAR	103	EZPOROGI
	ARRIETA		AIESA
	ARTOZKI	110	GALIPENTZU
	AZPARREN	111	GALOZE
	LAKABE		IZIZE
	NAGORE		ITZALLE
	SARAGUETA		USKARTZE
	URITZ	112	GARAIOA
	HIRIBERRI-ARTZIBAR	113	GARDE
31	ARESO	115	GARRALDA
33	ARIA	116	GENEVILLA
34	ARIBE	118	GOÑERRI
43	AZUELO		AIZPUN
52	BERASKOAIN		AZANTZA
55	BETELU		GOÑI

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
	MUNARRITZ	154	LEZAUN
	URDOTZ	156	LIZOAIN
119	GORZA	158	LONGIDA
	GORZA		AOS
	IGARI		ARTAXO
120	GESALATZ		EKAI
	ARGIÑAO		MURELU-LONGIDA
	ESTENOTZ GARISOAIN		BILLABETA
	GENBE	162	MARAÑON
	IRURRE	170	MIRAFUENTES
	ITURGOIEN	175	MUES
	IZURTZU	181	NABASKOZE
	LERATE		AIZPURGI
	MUETZ		NABASKOZE
	MUNIAN-GESALATZ		USTAIZE
	BIDAURRE	182	NAZAR
121	GIRGILLAO	185	OTSAGABIA
	ETXARREN GIRGILLAO	187	OITZ
	GIRGILLAO	190	OLEXUA
124	IBARGOITI	192	OLORITZ
	ABINTZAO		ETXAGUE
	IDOTZIN		MENDIBIL
	IZKO		OLORITZ
	GETZE-IBARGOITI		SOLTXAGA
128	IZABA	195	ORBAITZETA
132	ITZAGAONDOA	196	ORBARA
	ARDATZ-ITZAGAONDOA	197	ORISOAIN
133	ITZALTZU	198	ORONTZ
134	JAURRIETA	199	OROTZ BETELU
135	XABIER	203	PETILLA DE ARAGÓN
137	LABAIEN	204	PIEDRAMILLERA
139	LANA	209	ERROMANTZATUA
	GALBARRA		ARBONTZE
	GASTIAIN		BIOTZARI
	NARKUE		DOMEÑU
	BILORIA		MURILLO-BERROIA
141	LAPOBLACION	210	ERRONKARI
	LAPOBLACION	211	ORREAGA
	MEANO	213	SALDIAS
143	LARRAGOA	214	JAITZ
146	LEATXE	217	SAN MARTIN UNX
147	LEGARDA	222	SARTZE
150	LEOTZ		IBILTZIETA
	ARTARIAIN		SARTZE
	IRATXETA	225	SORLADA
	LEOTZ	230	TORRALBA DEL RIO
	OLETA		OTIÑANO
151	LERGA		TORRALBA DEL RIO

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
235	UXUE	244	URROTZ
237	UNTZITIBAR	245	URZAINKI
	ALTZAORRITZ	247	UZTARROZE
	ARTAITZ	248	LUZAIDE
	ZENBORAIN	252	BIDANKOZE
	NAXURIETA	255	VILLAMAYOR DE MONJARDÍN
	UNTZITI	256	HIRIBERRI-AEZKOA
	ZABALTZETA	261	ESA
238	UNTZUE	262	ZABALTZA
241	URRAUL GOITI		ARRAITZA
	AIETXU		UBANI
	IMIRIZALDU		ZABALTZA
	IRUROZKI	263	ZUBIETA
	ONGOTZ	264	ZUGARRAMURDI
243	URROTZ		



## **Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua**

### *PROIEKTUA ERRETIRATU EGIN DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru Diputazioak, 2001eko martxoaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua erretiratu egin du, Biltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoaren babesean. Hori horrela, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua erretiratu egin duela jakitun dagoela adieraztea.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Foru Komunitateko ureztapenen plana azkartu eta bete dezan**

### *NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Foru Komunitateko ureztapenen plana azkartu eta bete dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko eledun Juan Cruz Alli Aranguen jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nekazaritza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko aurkeztu du ondoko mozioa.

Nafarroako nekazaritza eta elikadura sektorea esparru zabalean murgiltzen da urte batzuetatik hona –Europar Batasunak eta mundu-merkatuak ezartzen dutena hain zuzen ere–. Hori hala bada ere, bere instituzioen bitartez, Nafarroako administrazioak zeregin handia du sektorearen emaitzak eta orientazioa direla eta.

Nekazaritzako biztanleria aktiboaren adina eta gehiegizko partzelazioa dira oraindik ere Nafarroako abeltzaintzaren eta nekazaritzaren arazorik handienak. Beste gabezia batzuen artean, ondo-koak nabarmentzen ahal dira: ureztalurren eskasia, ekonomiaren aldetik errentagarria den udale-

tako lurzati berrantolamenturik eza, nekazaritzaren eta industriaren arteko desoreka eta jendeak gure komunitateko eremu askotatik alde egitea. Horri guztiari gehitu egin behar zaio, jakina den bezala, birmoldaketa isila gertatzen ari dela; izan ere, biztanleria gero eta zaharragoa da –arazo larria benetan–, eta 2000 Agendaren aurreikuspenen arabera, zahartze prozesua areagotu baino ez da eginen.

Etorkizunean egin beharreko jarduketek produkzio egiturak sendotzeari eman beharko diote lehentasuna, herrialde aurreratuenetakoekin lehia aritzeko modukoak izan daitezten.

Nafarroako Gobernuari nekazaritza eta elikadura sektorea –eta landa-ingurunea oro har– dinamizatzean dagokion zeregina berreskuratzen saiatu behar dugu.

Horretarako, Nafarroako landa-inguruarentzako etorkizun itxaropentsuagoa definitu eta taxutzeko ekintzak hartu beharko dira kontuan. Hauek:

1.- Nafarroko ubideko eremu ureztagarriak planifikatzea. Ubideko ura baliatuko duten ustiatzeki bete beharreko baldintzak ezarriko dira.

2.- Ubidea eraikitzearekin batera jabegoa berrantolatzeko ekintzak eginen dira.

3.- Aldi berean, ekintzak eginen dira Arga, Ega eta Ebroko eskuineko ibai-ertzean.

4.- Lehentasuna emanen zaio usadiozko ureztatzeko sistemak hobetzeari, baldin eta hobetze hori ura aurrezten duten ureztatze sistemetan eta ekonomiaren aldetik egitura errentagarriak dituzten lurzati bategen besteko tamaina lortzean oinarritzen bada.

Ureztatzeak aberastasun franko sortzen du Foru Komunitatean; izan ere, B.P.G.aren % 17 ureztatze eremuetan lortutako produkzioen bidez eta gero horiek eraldatzearen bidez sortzen da

neurri handi batean. Funtsezkoa da landa-populazioak sendotzeko, eta horrenbestez, botere publikoek arreta osoa jarri behar dute hartan. Era berean, eta desertifikazioaren eta higadura prozesuen aurrean, ureztatzeak berebiziko balioa du lurraldearen antolamenduari begira, ahaztu gabe eragina duela orobat, ongarrien eta produktu fitosanitarioen erabilerarekin lotura duen aldetik, ingurumenean –kutsadura lausoa deitu izan zaio horri–; horrek eragiten du hain zuzen ere ureztatzeari loturiko jarduerak jasangarritasun printzipioari jarraikiz egitearen beharra, gaurko ekoizpenak biharko produkzioen kalterako izan ez daitezen.

Nafarroako ur baliabideen aprobetxamendua –ureztatzeko ur baliabideena alegia– ez da gure inguru geografikoko nekazaritzan gertatzen denaren arabera egin. Horrela, Aragoian, Ebroko arrora isuritako hektometro kubiko bakoitzeko, 62 hektarea bihurtu da ureztatzeko ur batez beste urtero, Katalunian 56 hektarea, Errioxan 50 eta Euskadin 34; Nafarroan, berriz, 24 hektarea baino ez da ureztatzeko ur hektometro kubiko bakoitzeko.

Nafarroan Landa garapenari buruzko legerik ez dugunez, politika oso zehatzetara jo behar dugu landa garapena dela-eta etorkizunerako esparru bat marraztu ahal izateko, ondokoak ahaztu gabe:

– Herrialde mugakideekin alderatuta, Nafarroan lur gutxi dugu ureztatzeko.

– Usadiozko ureztatzaileek, hasiera batean, ez dituzte begi onez ikusten ureztatzeko sistemak aldatzeko prozesuak.

– Gaur egun ditugun baliabideekin ezinezkoa da aldi berean finantzatzea modernizazioa eta ureztalurren sorrera, eta hartara, hautatzeko irizpideak ezarri behar dira.

Usadiozko ureztatzeko sistemen modernizazioak, batez ere, gizarte mailako arazoak konpontera jo behar du.

Ureztalurren sorrerak eta dauden ureztalurren modernizazioak dugun esperientziarekin eta Europar Batasunaren landa garapenerako funtsetan ezarritako jarraibideekin bat datozen irizpideak –ingurumenekoak, teknikoak, ekonomikoak eta sozialak– bete behar dituzte.

Nafarroako lehorreko laborantza –azaleraren ehuneko 60 ez da iristen errentagarritasun ekonomikoaren mugara– nekazaritza eta ingurumen funtzioa zinez betetzera bideratu beharko da, Europar Batasunetik datozen zuzentzauei jarraikiz.

1998aren bukaera aldean, Nafarroako Parlamentuak ureztapen plana onetsi zuen, eta hartan hainbat ekintza eta inbertsio planteatu zen, Nafarroako eremu batzuetan ureztalurren zabalak izatea eta beste batzuetan ordura arteko azpiegiturak hobetzea ekarriko zuten ekintzak eta inbertsioak hain zuzen.

Ureztapen planaren betetzea azaletik aztertzea nahiko da ikusteko planean aurreikusitako inbertsio batzuk nahiko atzeratuta daudela. Horrela, 2001ean obrak egin behar ziren Viana IIn, Deierrin, Andosillan eta abar, 1.000 milioiko inbertsioa eginez. Obrak hasi gabe daude, eta ez du ematen aurrekontu-ekitaldi honetan hasiko direnik.

Planaren arabera, legeria aldatzeko oinarriak prestatu behar ziren, besteak beste, ureztatzeko sistemaren aldaketari lehentasuna emateko, bai eta ponpaketa-sistemetakoa energia-efizientzia hobetzeko plan bat ere.

Bestalde, hainbat toki entitatek –Lerín, Torres del Río, Elizagorria, Andosilla, Arroitz– eta nekazari elkarteak –UAGN– Ega ibaia erregulatu beharra dagoela adierazi dute, Lizarraldean, beste aukera batzuekin batera, ureztatzeko eremuak izan ahal izateko bidea emanen duten urtegi txikiak eraikitzearen.

Ureztapen planaren arabera Lizarrako merindadean hurrengo hiru urteotan transformatu nahi diren 2.200 hektareak barik 14.000 hektarea baino gehiago transformatzeko eskatu dute instituzio horiek.

Uraren Kontseiluak 1996aren hasieran onetsi zuen Ebro arroaren plan hidrológicoaren ondorioz sortu da ekimen hau. Proposamen horretan aurreikusten zen urtegi bat eraikitzea Oteitzan –56 hektometro kubikokoa eta 3.979 milioi pezetako aurrekontua zeukana–, Estellerriko hainbat herritan 8.700 hektarea transformatzeko, 10.000 milioi pezetako aurrekontuarekin. Ezin da ahaztu, ezta ere, 2001eko aurrekontuko “Lurzatién berrantolamendua” izeneko lerroa 400 milioi pezetara jaitsi dela 2000koarekin alderatuta.

2001etik 2008ra bitarteko plan hidrológico nazionalari buruzko lege proiektua irakurtzean ikusten denez, desagertu egin dira Oteitzako urtegia eta Arga arroa erregulatzeari buruz 1996ko planean aurreikusten ziren neurriak, eta horrek harridura eta zalantza eragin du eremu horietako biztanleen eta arduradun politikoaren artean.

Horregatik guztiagatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ureztapen plana azkartu eta bete dezan, inbertsioei zein lege aldaketekin zerikusia duten alderdiei buruz aurreikusita zegoenari jarraikiz, Nafarroako ubidearekin lotura estua baitute.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ega ibaiaren erregula-

zioa planifika dezan, ureztalur bihurtu ahal izateko Estellerriko herrietako lehorreko hainbat eremu –Lerín, Arroitz, Elizagorria, Torres del Río eta Andosillakoak besteak beste–, biztanleria sendotu, landa-exodoa geldiarazi eta usadiozko nekazaritza beste aukera batzuekin batera jorratzearren.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio “Adio armaei” izeneko kanpainari**

### *FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio “Adio armei” izeneko kanpainari”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra, zenbait gobernu kanpoko erakundek igorritako mozio hau aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan eztabaida eta bozka dadin:

Munduan 500 milioi arma arin daude, eta heriotzen % 90 horien kariatz gertatzen da. Lurrean, egun, 30 gatazka armatu baino gehiago dira, eta, horietan, arma arinek kaltetzen dituzten % 90 herritar zibilak dira.

Espainiak, 1992 eta 1998 bitartean, batez beste, 11.000 milioi pezetako balioa zuten arma arinak esportatu zituen; 1999an, 12.000 milioi pezetako balioa zuten arma arinak.

Hori guztia kontuan hartuta, Nafarroako Parlamentuak hau dio:

1. Amnesty International, Greenpeace, Intermon eta Mugarik gabeko Medikuek eta gobernu kanpoko beste 13 erakundek arma arinak kontrolatzeko egiten ari diren "Adio armei" kanpainari babesa adierazten dio.

2. Uste osoa du gardentasuna areagotuta besterik ez direla kontrolatutako arma-esportazioak, eta eskatzen dio gobernuari ezen sei hilabeteko jakitera eman ditzala herri bakoitzera esportatutako produktu eta zerbitzuak, horien zerbatekoa eta zein izan den horien hartzailea aipatutako epearen ondorengo hiru hilabetean. Halaber, ministro-kontseiluari eskatzen dio ez ditzala isilpean gorde, nahiz eta 1986ko azaroko dekretu batek hala ezarri, Erabilera Bikoitza duen Materialaren eta Defentsakoaren Kanpo Merkataritza Arautzeko Ministerioen arteko Batzarraren (JIMDDU) datuak –batzar horrek arautzen ditu aipatu esportazioak.

3. Espainiako Gobernuari eskatzen dio sustatu dezan legez loteslea izan den akordio bat. Akordio horrek oinarri hartuko ditu bakearen Nobel saria irabazitako zenbait pertsonak 1997an aurkeztutako Nazioarteko Jokabide Kodearen printzipioak, armen nazioarteko merkataritza arautuko du eta Europako Batasuneko Jokabide Kodea hobetzea bultzatuko, zeina urtero berrikusten den, helburua baita kode hori aplikagarri zaion produktu-saila zabaltzea, kontuan izanik, Nazio Batuek 1997an ezarritako definizioaren arabera, torturatzeko eta heriotza-zigorra aplikatzeko materiala ere hor sartu behar dela; akordioak, halaber, arma arruntei buruzko Nazio Batuen erregistrarako deklaraziorik egiten ez duten herrietarako esportazioak murriztuko ditu, bitartekariak kontro-

latzeko moduak hobetuko, eta lizentziapeko produkzioaren gaineko kontrolak ere ezarriko ditu; orobat, eskualdatzeen azken erabilera kontrolatzeko bitarteko eraginkorrak ezarriko ditu akordioak, informazioa emanen du esportaturiko produktu, kopuru, diru-zenbateko eta hartzaileei buruz, eta sustatuko du aipatu kodea Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundeko herri guztietara heda dadin.

4. Gobernuari eskatzen dio arma arinen ugartze eta kontrolaren arazoa aztertzeko nazioarteko bilguneetan aktiboki parte har dezan, eta gai horretan parlamentuen arteko jarduerak, bereziki Latinoamerikako herriekin, susta ditzan.

5. Gobernua premiatzen du arma arinen berrosketa eta deuseztapena bultzatzeko programak susta eta finantzia ditzan arma horiek kontrolik

gabe ugartu diren herrietan, eta susta eta finantzia ditzan, orobat, soldaduak desmobilizatzeko eta biktimei laguntza emateko programak.

6. Gobernua premiatzen du zer jarduera egiten dituen, horien berri eman diezaion sei hilabeteko Kongresuari, hala ezartzen baitute arma arinen ugartzearen aurka borrokatzeko Europako Bata-sunaren 1998ko abenduaren 17ko ekintza komu-neko gomendioek.

7. Mozio honen kopia igorriko zaie Diputatuen Kongresuari, Kanpo-arazoetarako ministroari, Merkataritzarako Estatuko idazkariari, eta "Adio armei" kanpaina aurrera daramaten gobernuz kanpoko lau erakundeei.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefonia mugikorreko antenen instalazioa arautu dezan**

### ***IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA***

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefonia mugikorreko antenen instalazioa arautu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak mozio hau aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuaren ustez, herritar ugari dago kezkatuta tele-

fono-antenek osasunean izan dezaketen eragina dela-eta. Kezka horrek badu oinarririk; izan ere, bada horri buruzko zenbait azterlan zientifiko. Horren ondorioz, Nafarroako zenbait udal, bai eta Estatukoak ere, ordenantza bidez ari dira antena horien instalazioa arautzen. Gure ustez, beharrezkoa da, Nafarroako Gobernuak araudi bat onetsiz, udalei oinarri egoki bat ezartzea.

Egun, Nafarroako Foru Komunitatean, legearen aldetik hutsunea dago gai honetan, eta orain arteko arautzeek oinarri hartzen dutena da antenek ingurumenean duten eragina; arautze horiek beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoa.

Zenbait autonomi erkidegotan, gai hau arautzeari begira ari dira lanean. Nazioarteko erakunde ugari gomendatu dute planifikatu egin behar dela telefono antena horiek non jarri, pertsonak ahalik eta gutxiena egon daitezten antena horien eraginpean, eta, halaber, berrikusi egin behar direla eta kaltetutako herritarren osasuna bermatu.

Hori horrela, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu.

Nafarroako Gorteek hurrengoak egin ditzan premiatzen dute Gobernua:

1.- Telefono-antenen instalazioa arautu, kon-tuan izanik pertsonak ahalik eta gutxiena egon behar dutela antena horien eraginpean, eta, hala-ber, berrikusi egin behar direla eta kaltetutako herritarren osasuna bermatu.

2.- Oraingoz, egin behar diren instalazioak atzerarazi.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburutegien sarean Internet jar dezan**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburutegien sarean Internet jar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Gizarte honetan garatzeko zubi-lana egiten duten aldetik, beharrezkoa da botere publikoek

teknologia berriak mundu guztiaren eskura izatea sustatzea. Gobernua Nafarroan informazioaren gizartea sustatzeko plana prestatzen ari da. Gure ustez, beharrezkoa da plan horretan herritarrek Interneten era pribatuan sartzeko dirulaguntzak abiarazteaz gain modu publikoan sartzekoak ere abiaraztea. Nafarroako liburutegien sarean –bai Gobernuaren menpekoetan bai gainontzeko liburutegi publikoetan– Interneten sartzeko aukera eman behar litzateke. Liburutegi horiek denek eskura daudenez, Internet gehiago erabiltzeko aukera ematen dute.

Hori dela-eta aurkeztu dugu ondoko

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Nafarroako Gobernuko liburutegien sarean jende guztiarentzako Internet jar dezan.

2.- Gainontzeko liburutegi publikoetan Internet jartzeko lagun dezan.

3.- Helburu horiek informazioaren gizartea sustatzeko planean jasotzeko.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da atal zein bulego burutzak betetzeari buruzko araudia aplikatu dezan**

### **EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da atal zein bulego burutzak betetzeari buruzko araudia aplikatu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutua arautzen duen 13/1983 Foru Legeak orain hemezortzi urte indarra hartu zuenez geroztik, Nafarroako Gobernuak aldiro utzi du bete gabe legeak ezartzen dion betebeharra, alegia, bulego eta atal burutzak merezimenduen lehiaketa bidez bete beharra, horixe ezartzen baitute Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak eta Administrazioa arautzen dituen Foru Legeko 49. artikulua eta Langileen Estatutaren testu bategineko hirugarren xedapen gehigarriak -251/1993 LFD.

Halatan, lanpostu horiek ez profesionalizatzearen eta irizpide objektiboari jarraituz ez betetzearen ondorioz, administrazioaren egitura hierarkikoa ez da taxutzen unitateetako langileen gaitasun profesionalen eta zerbitzuen beharrezko arabera, baizik eta zuzendari eta kontseilarien interes politiko eta partikularren arabera eta haiekiko morrontzaren arabera.

Hori dela-eta, Nafarroako Kontuen Ganbarak 1995eko abenduaren 4an agerian utzi zuen "buru-

tza berriak sortuz eta izendapen askeko karguez hornituz antolakuntza egitura erabiltzen dela soldataren helburuetarako eta ez antolakuntza bera hobetzeko".

Bada, halere, Nafarroako Gobernuak oraindik ere egiten dio muzin arestiko horri guztiari, eta urtero gizentzen du administrazioko plantilla burutza berriekin, kasurik gehienetan, adiskidekeria eta morrontzaren bidez soilik uler daitezkeenak.

Agerian utzi nahi dugu burutzatarako izendapenek baztertu egiten dituztela administrazioko langile emakumezkoak; izan ere, administrazioko plantillako langilerik gehienak emakumeak dira, baina administrazioko eskala hierarkikoan gora egin ahala burutza horietatik bazterturik geratzen dira.

Horrenbestez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuko administrazio erroko langileen batzordeak hartutako erabakia bere egin eta ondoko erabaki proposamena aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuari:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du berehala eta estu-estu bete dezan dagoen araudia eta atal zein bulego burutzak merezimenduen lehiaketen bidez bete ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du araudi hori alda dezan, irizpide objektiboago, parte-hartzaileago eta demokratikoagoi jarraituz, administrazioaren egitura organikoa arrazoizkoago bihurtu behar baita.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du merezimenduen lehiaketen bidez bete ditzan gaur egun araudiari jarraiki gabe betetako burutzak, eta, hori egin bitartean, halako izendapen oro gerarazi dezan, bitartekoak barne; izan ere, Nafarroako Gobernuak bitartekoen bidea baliatu izan du aplikatu beharreko araudia ez betetzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hartu beharreko neurri guztiak har ditzan administrazioko langile emakumezkoen aurkako ageriko bazterkeria bukatzeko, eskubide osoa baitute edozein burutzatarari iristeko, euren lankide gizonezkoek bezalaxe.

Iruñean, 2001eko martxoaren 13an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kanpin instalazioetako arriskuak aztertzeari berriro ere ekin diezaion

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK AURKEZTUA

Foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kanpin instalazioetako arriskuak aztertzeari berriro ere ekin diezaion".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### MOZIOAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrenak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du osoko bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuak 1996ko irailaren 9an hartutako erabakiaren bidez, kanpin instalazioetako arriskuei buruzko azterlan egiteko agindu zitzaion hainbat departamenturi, eta koordinatzaile izendatu zen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua. Gobernuaren erabaki hartan azterlan bat egiteko agintzen zen, ondokoak jasoko zituen: kanpin jarduerak egiten diren lursailen ezaugarriak eta balizko arriskuak, jarduera horiek behar bezala jartzen direla bermatzeko hartu beharreko neurriak eta prebentzio neurriak zein hustutze planak. Zehaztu egin behar zuen orobat administrazioko agintarien erantzukizuna –batez ere udalena–, instalatzea, zaintzea eta arriskurik gertatuz gero neurriak hartzea direla eta.

Lan-taldearen edo departamentuarterko batzordearen lehen bilera 1997ko otsailaren 2an egin zen, eta harrezkero gutxienez ere bost bilera egin dira 1997an, eta hiru 1998an.

Ondokoak dira epe horretan egindako azterlanak:

- a) Arriskuak identifikatzeko azterlan orokorra.
- b) Kanpinetako autobabeserako eskuliburua.
- c) Oihan sutea izateko arriskuei buruzko azterlanak.
- d) Kanpin instalazioetan uholdeak izateko arriskuei buruzko azterlanak.
- e) Hamaika kanpinetan ibilgailuz sartzeko arazoei buruzko txosten teknikoak.
- f) Kanpinetako arrisku geoteknikoei buruzko txosten teknikoak.

Azterlan horietan hainbat ondorio eta jarraibide eman zen, eta egindako azterlanetan proposatutako neurriak behin betiko hartzen lagundu zezaketen laguntza publikoak prestatuko zirela erabaki zen.

Halere, eta turismo lojamenduen eskaintzan azpiegitura horiek gure erkidegoan duten garrantzia gorabehera, hiru urte iragan eta ez da ezarri ez egutegia ez zenbatekoak ere.

Hori dela-eta,

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuak premiatzen du atzera ere ekin diezaion kanpin instalazioetako arriskuak aztertzei 1996an sortutako departamentuarterko batzordearen lanari, eta hiru hilabeteko epean ekintza plan bat aurkez dezan Biltzarrean, gutxienez ere ondokoak jasoko dituen:

- a) Toki entitateei informazioa eta aholku emateko jarduketak, egun dauden instalazioei eta instalatu nahi diren berriek bete beharreko baldintzei buruz.
- b) Gure erkidegoan egun dauden enpresei gaiari buruz informazioa eta aholku ematea.
- c) Gobernuak eginiko azterlanetan proposatzen diren neurriak hartzen lagundu behar duten laguntza publikoak ezartzea.
- d) Jarduketa egutegia zehaztea.

e) Planean ondokoen parte hartzea jasoko da: azterlanak egin dituzten departamentuak, Nafarroako Kanpinen Elkarteak, ukitutako toki entitateetako ordezkariak eta gure erkidegoan toki mailan dauden garapen egituretakoak.

Iruñean, 2001eko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da sexu- eta osasun-hezkuntzako teknikari lanpostuetarako prestakuntza berezia eska dezan**

### *EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da sexu- eta osasun-hezkuntzako teknikari lanpostuetarako prestakuntza berezia eska dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Biltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Famili plangintza eta sexu hezkuntzako zentroek –gero Emakumeari Laguntzeko Zentro izena hartu baitute– gizarte-lan izugarri garrantzitsua egin izan dute azken 20 urteotan sexu osasunaren eta ugalketari begirako osasunaren eremuan hezkuntza, prebentzioa eta laguntza direla eta.

Aurrena COFES eta hurrena Emakumeari Laguntzeko Zentro izena izan duten horiek Bideko Ama Birjina Ospitalaren menpe egotera pasa zirenez geroztik, lan- eta filosofia-arrazoiak direla medio, sexu osasunaren eta ugalketari begirako osasunaren ordez osasunaren ikuspuntutik laguntza hutsezko filosofia baizik ez dena ezartzen ari dira arian-arian eta ezkutuka.

Tokoginekologia eta famili plangintzako osasun prestazioen antolamendua ezartzen duen irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretuaren bidez nafarrei sexu hezkuntza eta famili plangintza eskaintzen bazaie ere, azken aldi honetan eskaintza horren kontra bete-betean jotzen duten ekintzak burutzen ari da Nafarroako Osasun Zerbitzua osasun/sexu hezkuntzako teknikariak kontratatzean.

Osasun eta sexu arloko hezitzaileen lanpostuak betetzeko profilak ezartzean badirudi Nafarroako Gobernuaren asmoa dela osasun arloko titulazioak eskatzea soil-soilik eta gainontzeko titulazioak eta lanbideak baztertzea, nahiz eta horiek sexu arloko prestakuntza berariazkoa izan; aldiz, Gobernuaren ustez ez omen da eskatu beharrekoa beteko diren zereginetarako prestakuntza berariazkoa.

Horrela, profesionali beteko dituzten zereginetarako prestakuntza berariazkoa eskatzen ez bazaie, ez da zerbitzu hori eskainiko, eta hori da hain zuzen ere kasuren batean gertatu dena.

Hori dela-eta, gure talde parlamentarioak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du emakumeari laguntzeko zentroetan osasun eta sexu hezkuntzako teknikari lanpostuak betetzeko deialdietan ez ditzan eska osasun arloko titulazioak soil-soilik eta sexu hezkuntzako zereginetarako prestakuntza berariazkoa eska dezan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du emakumeari laguntzeko zentroek garatu beharreko ekintzak eta programa bereziak berma ditzan, eskaerari aurre egiteko behar adina langile prestatu jarritz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 14an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako adierazpen instituzionala**

### *ELEDUNEN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen:

**1.-** Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako adierazpen politikoa onestea. Hona:

“Historian zehar hainbat modutan justifikatu eta zuritu izan dira arrazakeria eta xenofobia.

Hasiera batean, tesi arrazistak zioen giza arrazak –fisikoari zein moralari erreparatuta – argi eta garbi bereiz zitezkeela elkarren artean eta arraza bat besteen gainetik zegoela, eta arraza zuria zen hain zuzen ere eskala horretako gailurrean zegoena. Teoria hori bazterturik dago gaur egun, antropologiaren, psikologiaren zein genetikaren aldetik gaur egun egiten diren analisisiei jarraikiz ez baitute inongo euskarririk. Gaur egun ozen esan daiteke arraza –espezie hobe esanda– bakarra dagoela, giza espeziea alegia.

Halere, arrazakeria “zahar” horren tokia hartu du azken hamarkada hauetan arrazakeria etniko eta kultural “berria” izenez ezagutzen duguna; horren arabera, talde ezberdinen arteko kultur diferentziak absolutuak izanen lirатеke, eta hainbat giza taldek bereganatu ezinezko ezaugarriak dituenek, bizikidetasuna ezinezkoa eta nahasketa baztergarria lirатеke.

Planteamendu horien atzean gizarte mailako estereotipoak ezkututzen dira, pertsonen arteko kultur trukeak eta eskubide berdintasunak dakarten giza aberastasuna ukatzea bilatzen dutenak.

Gaur egun ere hamaika bereizkeria eta indarkeria egoera gertatzen da arrazakeriak eta xenofobiak eraginda. Oraindik ere ez da errespetatzen Giza Eskubideen Adierazpen Politikoaren 13.2 artikulua –persona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa–, eta ez da bermatzen pertsona guztiek eskubide berberak dituztela, beraien nazionalitatea eta kultura zein ere diren.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak hitz ematen du pertsonen giza eskubideak eta pertsonen eskubide berdintasuna zainduko dituela, arbuiatu egiten ditu arrazakeria eta xenofobia eta herritarrak bultzatzen ditu eguneroko bizitzan xenofobia zein arrazakeria aurreiritzi eta jarrera oro bazter dezaten.”

**2.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko martxoaren 20an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## “Andosilla II” izeneko lurzati berrantolamenduari buruzko galdera

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak “Andosilla II” izeneko lurzati berrantolamenduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Aspaldi eman zitzaion hasiera Andosillako “Andosilla II” izeneko lurzati berrantolamendua, 800 ha-koa, egiteko izapideari. Prozesu luze eta astun baten buruan, berrantolamendua “Behin betiko oinarriak” deritzon fasean dago eta beraz, pentsatzekoa obrak aurki hasteko moduan izanen direla.

Nafarroako 2001eko aurrekontuetan, lurzati berrantolamenduari buruzko oroit-idazkian, Andosillakoa ageri da egin behar direnen artean, administrazio izapideak amaitu gabe daudela.

Andosilla alde horren ezaugarriak bereziak dira, laboreak urteko eta aldikoak dira eta soroak

udaberrian landu behar dira. Bestalde, lurzati berrantolamenduko prozesu honetan sartutako nekazarietako askok Ingurumen Departamentuak nekazaritza eta ingurumenaren arlorako banatzen dituen dirulaguntzak jasotzen dituzte, eta horregatik ezinbestekoa dute garai horretan finkak mugarritzea, lanean hasi eta mahatsondoak sartu ahal izateko, hala egiten badute.

TRACASArekin hitz egin ondoren jakin dugu enpresa publiko horrek aipatutako mugarritzea egiteko kartografiako lanak eta planoak prest dauzkala, eta Nekazaritzako Egituren Zerbitzuaren esku dagoela hura gauzatzea.

Horren aurrean, jakin nahi dugu:

1. Zein dira Nafarroako Gobernuaren Nekazaritza Departamentuaren aurreikuspenak Andosillako “Andosilla II” izeneko lurzati berrantolamendutik sortutako finkak mugarritzeko dituen aurreikuspenak?

2. Nafarroako Gobernua jabeturik al dago ukitutako nekazariari 2002ko martxoan finkak ez mugarritzeak eragin diezaiekeen kalteaz?

3. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du kalte-ordainik edo neurri osagarririk nekazariari eragindako kalte horien ordainetan, finkak ez mugarritzearen ondorioz, soroak landu gabe gelditzen badira eta Ingurumen Departamentuaren nekazaritza eta ingurumenaren arloko dirulaguntzak galtzen dituzten kasurako?

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

## A-68ko Lodosako sarbideari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak A-68ko Lodosako sarbideari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Lodosako Udalak plan estrategiko bat prestatu du herrirako; plan horretan, hura egin dutenen ikuspuntutik Lodosak dituen aukerak eta premia larrienak ageri dira. Premien artean nabarmentzen

da herritik A-68rako sarbide zuzena izatea, lehen-tasuneko gaia baita.

Herri horretako Udalak egindako azterlana ikusita, hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernuak aurreikusirik al du Lodosako eskariari, hau da, herritik A-68ra sarbide zuzena izateari erantzuna ematea?

2. Nafarroako Gobernuak harremanik izan al du autopistaren kontzesio hartzailearekin Lodosaren eskaria bideratzeko?

3. Nafarroako Gobernuak aztertu al du Nafarroako alde horretarako hain garrantzi handikoa den lotune hori Nafarroako aurrekontu orokorren kargura egiteko aukera?

4. Abiadura Handiko Trenean aurreikusiriko Castejón-Logroño tartean Lodosa sartzeko negoziatioak nola daude?

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

## Eguzki-energia sustatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M<sup>a</sup> TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak eguzki-energia sustatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzónnek, Parlamentuko Erregela-

menduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun dakion:

Eguzki-energia sustatzea da Nafarroako energi planak ezartzen duen helburuetako bat; Nafarroako Gorteek onetsi zuten plan hori. Horretarako, energia hori sustatzeko, eguzki-panel termikoak eta panel fotovoltaikoak jartzeagatik zeuden laguntzak osatzeko neurriak ezarri zituen planak. Geroztik, Estatuko arauak aldatu eta elektrizitatea inongo mugarik jabe jaulki daiteke sarrera.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Industri Ministerioak elektrizitate sarera eguzki energia eta energia fotovoltaikoa jaulkitzeari buruz onetsitako dekretuan ezarritako neurriak osatzeko eta eraginkorragoak izateko, aurreikusi

al du Nafarroako Gobernuak foru arauak egokitztea?

2.- Zenbat eraikin publikotan ditu jarrita Nafarroako Gobernuak eguzki-panelak edota panel

fotovoltaikoak?

Iruñean, 2001eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

## Telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruzko galdera

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres andreak, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun dakion.

Iruñeko zenbait auzo-komunitate kezkatuta daude telefono antenek gizakiengan izan ditzaketen kalteak direla eta; bestalde, udal guztiak ez dira berdin arautzen ari hiriguneetan antenak jarztearen gaia.

Egoera hori horrela, hau jakin nahi da:

– Egin al du Nafarroako Gobernuak inongo azterlanik antena horien kokagunerik egokiena zein izan daitekeen jakiteko, bai eta antena horiek herritarren osasunean izan ditzaketen kalteak ezagutzeko? Baiezkoan, zein datu lortu dira?, zein dira ondorioak?, noiz egin zen azterlana?

Ezezkoan, komenigarria iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari horrelako azterlan bat egitea? Noiz egingen du, eta zer baliabide ditu?

Beharrezkoa dela uste al du arauak aldatu eta ezartzea zein leku edo guneeetan ezinen den telefono antenarik jarri, bai eta arautzea zein izanen den antena horiek etxebizitzekiko izanen duten gutxieneko tartea?

Aurreko galderan aipatutakoei dagokienez, araututa al dago Espainiako beste erkidegoren batean telefono estazioek nola behar duten? Hala bada, egokituko al dira Nafarroan arau horiek?

Edonola ere, ez al litzateke gai hau berdintsu arautu behar Nafarroako udal guztietan?

Iruñean, 2001eko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroan arte garaikidearen zentroa sustatzeko konpromisoari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroan arte garaikidearen zentroa sustatzeko konpromisoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta Beaumont Fundazioak konpromisoa hartu dute Iruñeko Zitudelan Arte Garaikidearen Zentroa denek batera sustatzeko. Nafarroako Kultura Kontseiluak kritikatu du gai hori, Iruñeko Zitudela interes kulturalerako ondasuna dela argudiatuta. Katalogazio hori dela-eta, zenbait betebeharren menpe dago, hala nola barne zein kanpoko lanik egiteko debekua ondare historikoaz arduratzen den erakundearen baimenik gabe, higiezinak behin betikoz aldatzen duten eraikinak egiteko debekua, etab.

Bestalde, hiru aldeek (Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udala eta Beaumont Fundazioa) izenpeturiko hitzarmenaren eraginez, zenbait lanpostu bete beharko dira: "Kontserbazioko arduraduna, Fundazioaren zuzendari kudeatzailea", etab.

Horren aurrean, hauxe jakin nahi dugu:

1. Ba al daki Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalak hasiera eman dion udal ondasunak lagatzeko prozedurari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean aurreikusten duenez, aldeek izenpeturiko hitzarmenetik heldu diren beharkizunak betetzen hasteko?

2. Ba al daki hasirik dauden izapideak Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen baldintzak betetzeko, Zitudela interes kulturalerako ondasuna dela kontuan hartuta?

3. Hitzarmenerako proposamenaren gainean Nafarroako Kontseiluak emaniko irizpenean aipatzen da "hitzarmenek aldean nahiaren arabera arauak dituzte, aldeek ezartzen baitute beren konpromisoen norainokoa, betiere beren estatutua bera erregulatzen duen ordenamendu juridikoa errespetatuz". Aurreikusirik al du bestelako formula juridikoak ezartzea hitzarmenaren nondik norakoak osatzeko?

4. Nafarroako Gobernuak erabaki al du zein izanen diren Nafarroako Arte Garaikidearen Zentroko Kontserbazioko arduraduna eta zuzendari kudeatzailea?

5. Nafarroako Gobernuaren iritziz nahikoa al da Beaumont Fundazioak Zentroaren esku uztea haren artelanen bilduma?

6. Gure taldeak eskatu zuen dokumentazioan, aldean arteko hitzarmenaren izenpean, eranskin bat aipatzen da, bildumako lanak eta egileak ageri omen direnekoa, baina guk ez dugu zerrenda hori aurkitu gure dokumentazioan eta horren kopia eskatzen dugu.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefona* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--